




Emakumeen eta gizonen berdintasunerako **VII. PLANA**

LABURPENA





**Emakumeen eta gizonen
berdintasunerako**

VII. PLANA

Bertsio laburtua

Izenburua:

“EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana”.

Argitaratzailea:

Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier kalea, 36 · 01005 Vitoria-Gasteiz

Diseinu grafikoa, maketazioa eta ilustrazioa:

GEN creativo

VII Planaren bertsioa osoa, hemen: <http://www.emakunde.euskadi.eus>

AURKIBIDEA

Dokumentu hau EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Planaren bertsio laburtua da. Planaren bertsio osoa hemen kontsultatu daiteke: <http://www.emakunde.euskadi.eus>



1. 1.DEFINIZIOA

6



2. VII. PLANA EGITEKO PROZESUA

8



3. PRINTZIOPIOK ETA BERMEAK

9



4. VII. PLANA BESTE ESPARRU PROGRAMATIKO BATZUEKIN PAREKATZEA

10



5. GOBERNU ONA

11

6. ESKU HARTZEKO ARDATZAK



6.1. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

14



6.2. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

16



6.3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

18



7. KUDEAKETA-SISTEMA

20



1. DEFINIZIOA

ZER DA?

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana **berdintasunaren arloan** EAEko botere publikoen jarduera bideratuko duen **IBILBIDE-ORRIA** da.

VII. Planean zehazten da Eusko Jaurlaritzak eta bere sailek, foru-aldundiek eta udalek esku-hartzearekin zer **helburu orokor** bete behar dituzten, elkarrekin eta koordinatuta, Berdintasunerako Legeak eskatutako jarduera-programen eta plangintzen bitartez.

ZER HELBURU DU?

Prozesuan aurrera egitea, **emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzen** laguntzeko, bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren eremu guztietan.

NORK EGITEN DU?

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea arduratzen da plana egiteaz, haren aplikazioa bultzatzeaz eta emaitzak ebaluatzeaz. Horretarako, 2017an zehar, berdintasunaren arloan espezializatuta dauden eragile sozialek parte hartu dute, eta adostasun batera iritsi dira.

NOIZ ETA NON APLIKATZEN DA?

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana **2018an jarriko da indarrean, eta Euskal Autonomia Erkidego osoan aplikatuko da.**

ZERGATIK GARATZEN DA?

Berdintasunerako 4/2005 Legeak xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzak plan berri bat onartu behar du legegintzaldi bakoitzean. 4 urteko indarraldia du.

XEDEA: BALIOAK ALDATZEA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren xedea botere publikoak gidatzea da, bizitzaren eremu guztietan **emakumeen eta femeninotasunaren mende-kotasuna sostengatzen eta justifikatzen duten balioak aldatzen** laguntzeko.

Balio aldaketa hori nahitaezkoa da giza garapen jasangarri-rako, eta **beste balio batzuk sortzea eta finkatzea** eskatzen du, androzentrismoak, sexismoak eta matxismoak zeharkatu gabeak.

Balio-aldaketa horri esker, **emakumeen eta gizonen bizitzek balio bera izango dute**, eta estereotipoek eta aurreiritziek baldintzatu gabeak izango dira.



Emakumeen eta gizonen
berdintasunerako **VII. PLANA**



NOLA EGITURATZEN DA?

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak **4 ESKU-HARTZE EREMU** ditu: “Gobernu Ona” (erakunde-aldaketarako eta/edo barne funtzionamendurako erronkak, administrazio publikoetan) eta herritarren esku-hartzerako 3 ardatz nagusiak (izaera sozialeko erronkak).

Horietako bakoitzean, jarduera-jarraibideak ezartzen dira, **programetan eta helburuetan** zehaztuta.

4 eremu horietako esku-hartzea aldi berean gertatzen den arren, prozesu lineal bat dago, berdintasuna barnetatzen eta gizartea eraldatzen laguntzen duena.



1.- GOBERNU ONA

Barneko Eremua. Erakundeen barneak.

Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren txertatzea legitimatzeaz, aitortzeaz eta bultzatzeaz arduratzen da.

Horretarako, gizarte osorako eredugarria izateaz gainera, Gobernu Onean finkatuta uzten dira gobernu-jarraibideak, aurrekontu-izendapenak, erakunde-akordioak, kudeaketa gardeneko prozedurak eta zaintza-sistemak.

5 programa daude, 15 helburu estrategikorekin eta 47 helburu operatiborekin.

3 JARDUTE ARDATZ



2.- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Emakumeengan ardaztua.

Emakumeen eta neskatilen **ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa** babestea eta sustatzea.

Ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eraldaketa sozialerako.

Emakumeak ahaldundu gabe, ez dago berdintasunik.

2 programa daude, 7 helburu estrategikorekin eta 25 helburu operatiborekin.



3.- EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

Ingurune sozio-ekonomikoa.

Beharrezkoa da eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzeko, eskubideak bermatzeko eta **eredu sozial iraunkorrako eta berdinzaleago bat** lortzen laguntzeko.

3 programa daude, 8 helburu estrategikorekin eta 42 helburu operatiborekin.



4.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

Sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa, arreta, berroneratzea eta erakundeen arteko koordinazioa.

Arreta jartzen da, batetik, **prebentzioan**, eta, bestetik, bizirik jarraitzen duten **biktimei arreta integrala ematean** (erabat oneratzeko diren arte).

3 programa daude, 7 helburu estrategikorekin eta 36 helburu operatiborekin.



2. VII. PLANA EGITEKO PROZESUA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana egiteko, **partaidetzazko prozesu ireki eta arautu bati jarraitu zaio 2017an zehar**: hausnarketarako eta eztabaida politiko, tekniko eta sozialerako bideak eta uneak zabaldu dira. Prozesu horretan, garrantzi berezia izan du EAEko emakume-elkarteen mugimenduaren parte-hartzeak.

Parte hartzeko prozesu guztian, honako hauek bermatu dira:

- Hizkuntza-eskubideak eta lurralde-ordezkaritza.
- Berdintasun-politiken garapenean erantzukizun-maila desberdinak dituzten taldeen presentzia eta parte-hartzea.
- Emakume-mugimenduen parte-hartzea, ordezkatzen dituzten errealitate guztiak kontuan hartuta
- Emaizak etengabe bidaltzea

I. FASE

I.- PROIEKTUAREN HASIERA

Emakundek VII. Planaren Oinarri Dokumentua egin du, honako hauetan oinarrituta: VI Planaren ebaluazioa • Berdintasunerako 4/2005 Legearen ebaluazio-txostenak • Euskadiko Emakumeen eta Gizonen 2016ko Zifren Txostena • Nazio Batuen Garapen Iraunkorrari buruzko 2030 Agenda • Berdintasunerako Europako Estrategia (2015-2020) eta • XI. Legegintzaldirako Gobernu Programa.

II. FASE OINARRI DOK.

II.- VII. PLANAREN OINARRI-DOKUMENTUAREN INFORMAZIOA ETA KONTRASTEAK

- 3 lantegi, berdintasunaren arloaren ardura duten teknikariekin (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, toki erakundeak eta EAEko beste erakunde publiko batzuk).
- 6 lantegi, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko azpibatzerde aholku-emaileen emakume-elkarteetako ordezkariekin.
- Oinarri dokumentua Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluari eta Aholku Batzordeari aurkeztea.

III. FASE I ZIRRIBORROA

III.- ZIRRIBORROA HOBETZEA ETA BALIOZKOTZEA

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeari aurkeztea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeari aurkeztea.
- Erakundeen Arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeari aurkeztea (Erakundeen Arteko II. Akordioa, etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko).

IV. FASE II ZIRRIBORROA

IV.- ZIRRIBORROA JENDAURREAN JARTZEA

Gizarte zibilari, erakundeei eta agente ekonomiko eta sozialei aurkeztea, ekarpenak jasotzeko.

V. FASE BEHIN BETIKO DOK.



V.- FASEA. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA ONARTZEA

Nahitaezko txostenak tramitatzea.
Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak onartzea.
Gobernu Kontseiluak onartzea.

3. PRINTZIPIOAK ETA BERMEAK

PRINTZIOPIO GIDARIAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAEko botere publikoen jardura gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzen dira.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak horietako batzuk sakontzen eta azpimarratzen ditu, estrategiakoak direlako, eta beste batzuk sartzen:

- **PARADIGMA FEMINISTA**
- **GENERO-IKUSPEGIA**
- **INTERSEKZIONALITATEA**
- **EMAKUMEEN AHALDUNTZEA**
- **GIZA GARAPEN JASANGARRIA**

BERMEAK

Printzipio horiez gainera, berme hauek ezartzen dira, jasotako jarduketak operatiboak izan daitezen eta aurreikusitako inpaktua izan dezaten:

- 1. Benetako konpromiso politikoa**
- 2. Aurrekontu-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak**
- 3. Gardentasunaren eta herritarrei kontu-ematearen aldeko politika.**
- 4. Herritarren eta emakume-mugimenduen parte-hartzea eta solasaldia, bai eta eragile ekonomiko eta sozialena ere, politiken garapenean.**
- 5. Erantzukidetasuna eta lankidetzatza, erakunde, sail eta arlo guztiena eta horietan dauden pertsonena.**





4. VII. PLANA BESTE PROGRAMA-ESPARRU BATZUEKIN PAREKATZEA

VII. Planaren egitura helburuak erreferentziako esparru programatiko batzuekin parekatzeko nahiaren emaitza da.

- Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda (NBE)
- Europar Batasunaren Konpromiso Estrategikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako (2016-2019)
- Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldiko Gobernu-programaren konpromisoak.



GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDA

Aurrerapen nabarmena dakar genero-ikuspegiari dagokionez: **“genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neskatila guztien ahalduntzea” (5. helburua)** helburu espezifiko gisa jasotzen du, eta funtsezkotzat jotzen du proposatutako gainerako helmuga eta helburuak lortzeko.



EUROPAR BATASUNAREN KONPROMISO ESTRATEGIKOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO (2016-2019)

Europar Batasuna, bere programa estrategikoan, lehentasunezkoak diren 5 arloetan ardatzen da.

- Emakumeek lan-merkatuan duten parte-hartzea handitzea eta emakumeek eta gizonen independentzia ekonomiko berbera izan dezaten bultzatzea;
- Ordainsariei, diru-sarrerei eta pentsioei dagokienez, sexuen artean dauden ez-parekotasunak murriztea, emakumeen pobrezia aurre egiteko;
- Erabakiak hartzeko guneetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea
- Indarkeria sexistari aurre egitea eta biktimak babestea eta laguntzea;
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen eskubideak sustatzea mundu osoan.



GOBERNU PROGRAMAREN KONPROMISOAK, EUSKO JAURLARITZAREN XI. LEGEGINTZALDIRAKO

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana Eusko Jaurlaritzak XI. Legegintzaldirako onartutako Plan Estrategikoen Programaren barruan sartzen da.

Euskadi European genero-berdintasunean aurreratuen dauden herrialdeen artean kokatzea da Gobernu-programa XI. Legegintzaldirako jasotzen dituen hamabost helburuetako bat.


Eustatek emandako datuen arabera, Genero Berdintasunerako Europako Institutuak (European Institute of Gender Equality) egindako Europar Batasuneko Berdintasun Indizearen metodologiari jarraituz, 2015ean EAEk 69,3 puntu zituen 1etik 100erako eskala batean; beraz, puntuazioa hobea lortu zuen 2010ean baino (68,8 puntu) eta 2012an baino (69,1 puntu). UE-28ko batez bestekoari dagokionez, Euskadik puntuazio handiena du dimentsio guztietan (enplegua, dirua, jakintza, denbora, boterea eta osasuna).

Genero Berdintasunaren Indizearen adierazleak (GBI), bere dimentsio guztietarako, VII. Planaren adierazle estrategikoak dira.





5. GOBERNU ONA



Nazioartean aho batez onartzen da: emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko, nahitaezkoa da legeriaren eta politika publikoen bidez **gobernu-zuzentarauak, aurrekontu-izendapenak, erakundearteko akordioak, kudeaketa gardeneko prozedurak eta kontrol-sistemak** sortzea, konpromisoak betetzea bermatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Publikoaren Planari jarraituz, **Gobernu Onak** ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eremuak kudeatzen ditu, eta horietan aurrera egiten du, honako hauetan **genero-ikuspegia txertatzen duen kultura** baten bidez:

- Gardentasuna
- Herritarren parte-hartzea
- Lankidetza publiko eta pribaturako formula berriak ikertzeko eta praktikatzeko beharra
- Administrazioen arteko lankidetza
- Politika publikoen ebaluazioa, horiek hobetzeko eta helburuak lortzera bideratzeko

Azken batean, **berdintasunean oinarritutako eredu batera igaro behar da, eraginkortasuna, gardentasuna, kontu-ematea eta gizarte zibilaren parte-hartzea** baliatuz.



5. GOBERNU ONA

Gobernu Onari laguntzeko, VII. Planak **hamabost helburu** ezartzen ditu, nola 4/2005 Legearen eskakizunei hala hainbat eremu-tako programetan eta arauetan jasotako konpromisoei erantzuteko. Neurri horiek **bost programa** hauetan antolatzen dira:

I. PROGRAMA

KONPROMISO POLITIKOA

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko borondate politikoa zehazten da eta bideragarri egiten.

- BG.1. Berdintasunari buruzko araudi espezifikoa onartzea eta garatzea.
- BG.2. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontuak gehitzea.
- BG.3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.
- BG.4. Berdintasunerako organo eta unitate administrati-
boak sortzea eta indartzea.

II. PROGRAMA

BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA

Administrazio publikoetako langile guztiek behar besteko ezagutza izan dezaten beren esku-hartzeetan genero-ikuspegia txertatzeko.

- BG.5. Prestakuntza ematea erakunde publikoetako langile guztiei, baita politikariei ere.





III. PROGRAMA

GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN

Prozesu eta prozedura administratiboak tresna erabilgarriak izan daitezen berdintasuna lortzeko.

- BG.6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.
- BG.7. Enplegu publikoko lanpostuak lortzeko eta sustatzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.
- BG.8. Komunikazioan berdintasuna txertatzea.
- BG.9. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.
- BG.10. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.
- BG.11. Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.
- BG.12. Kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.

IV. PROGRAMA

KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA

Berdintasunari zeharka hel dakion administrazioaren arlo eta maila guztietan.

- BG.13. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea.

V. PROGRAMA

PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA

Herritarren ahotsa, batez ere emakumeena, presente egon dadin politika publikoen diseinuan.

- BG.14. Emakumeek eta gizonek zuzendaritza-organismoetan edo organo pluripertsonaletan ordezkaritza orekatua izan dezaten sustatzea.
- BG.15. Kotsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzea.



6.1. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA



Definizio bat baino gehiago dago ahalduntzeari buruz. Marcela Lagarde y de los Ríos antropologoaren arabera, prozesu hau jotzen da ahalduntzetzat: **emakume bakoitzak besteentzat aritzeari uzten dio, besteen objektu izateari, historiaren objektu izateari, politikaren eta kulturaren objektu izateari, eta bere bizitzaren subjektu bihurtzen da, bere buruarentzat arituko delarik, historiaren, kulturaren, politikaren eta bizitza sozialaren protagonista izanda.**

Ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eraldaketa sozialerako. Printzipio horrek gidatzen du proposatutako plangintza guztia, zeren eta, Emakumeari buruzko Nazioarteko IV. Konferentzian erabakienez, **emakumeen ahalduntzerik gabe ez dago berdintasunik** (Beijingeko Adierazpenaren 13. artikulua, 1995).

Azken hamarkadetan, emakumeen ahalduntzeari bultzada ematea **lehenetasunezko ardatza izan da politika publikoetan**. Horren haritik, erakundeen erronka eta desafioen ardatz izan behar dira batetik, **emakumeen eta emakume-mugimenduen ahalduntze indibidual, kolektibo, sozial eta politikorako** prozesuak babestea, eta, bestetik, prozesu horiek **ikusgarri eta iraunkor** egitea.



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea berme bat da ahalduntze-prozesuei babes publikoa emateari **legitimitatea eta aginpidea** emateko, horrek esan nahi baitu agenda publikoan jasota dagoela emakumeen aurrerabideari **bultzada eta aitortza ematea**. Gainera, gardentasunari begira, bada kontuan hartu beharreko gako bat, emakumeen ahalduntze-prozesuak **ikusgarri eta iraunkor** egiteko: **neurtu eta zabaldu** egin behar dira ahalduntzeak emakumeentzat ez ezik gizarte osoarentzat ere ekartzen dituen **aurrerabideak eta hobekuntzak**.

VII. Planak, VI. Planean ezarritako lan-ildoari jarraituz, emakumeen ahalduntzean lagundu nahi du, **bi programaren bitartez**:

1. PROGRAMA

EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALARI ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZEA

Emakumeen garapen indibidualari eta kolektiboari lagundu nahi zaio; horretarako, honako hauek indartu eta bultzatuko dira:

- 1.1. Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten garrantzia.
- 1.2. Emakumeen autonomia, autoestimua eta genero-kontzientzia.
- 1.3. Emakumeen osasuna eta autozaintza, adin guztietan.
- 1.4. Baliabideen hobekuntza; desberdintasun handienak dituztenena, bereziki.

2. PROGRAMA

EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALARI ETA POLITIKOARI LAGUNTZEA

Emakumeen garapen indibidualari eta kolektiboari lagundu nahi zaio. Horretarako, honako hauek indartu eta bultzatuko dira:

- 2.1. Berdintasuna, gizarte- eta herri-mugimenduetatik.
- 2.2. Emakumeen parte-hartze soziala, eremu eta gune guztietan.
- 2.3. Emakumeen presentzia eta eragina, erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan.





6.2. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO



Ekonomiak eraldatzeko eta eskubide ekonomikoak eta sozialak gauzatzeko, beharrezkoa da hiru lehentasun-arlotan jardutea: **lan duina emakumeentzat, genero-ikuspegidun politika sozialak eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoak.**

Eztabaida publiko bat bultzatu behar da egungo eredu ekonomikoari buruz. Horretarako, alderdi batzuk **agerian jarri behar dira**; esaterako, **EAEko emakumeen enplegua prekarioagoa izatea eta pobrezia feminizatuta egotea**. Bi errealitate horiek sakonago aztertu behar diren arren, bada alderdi bat bietan eragiten duena: naturalizat jotzea zainketa-lanak emakumeen gain uztea.

Pertsonak zaintzeko beharrak betetzeko egiten diren jarduerak jotzen ditugu **zaintza-lantzat**. **Nagusiki, emakumeek betetzen dituzte** bi eremutan:

- **etxean eta boluntarioratzen**. Normalean, ordaindu gabeko lanak izaten dira. Diruagatik ez bada, beste motibazio batzuenagatik egin daitezke, hala nola maitasunagatik eta elkartasunagatik, edo, aitzitik, sumisioagatik eta besteen ongizaterako betebeharragatik eta konpromisogatik.
- **Eremu profesionala**: Normalean, gaizki ordaindutako lana izaten da, erakunde publikoetan eta enpresa pribatuetan egiten dena.

Lan horiek oraindik ez dira agertzen analisi makroekonomikoan, oso modu prekarioan egiten dira, eta munduko emakume guztien bizitzak baldintzatzen dituzte.



VII. Planak programa eta helburu hauek ezartzen ditu ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzeko:

3. PROGRAMA

BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA

Balio hori emakumeak eskubideak dituzten gizakiak direla onartzetik abiatzen da, eta balio hori ezarri egin behar da, hezkidetza-eredu baten bidez eta prozesu horretan erantzukide izango direla instituzioak, erakundeak eta gizarte osoa.

- 3.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna balio sozializat aitor dadin laguntzea.
- 3.2. Herritartasun-eskubideen erabilera bultzatzea, hezkidetzaren bidez.
- 3.3. Antolaketaren eta enpresaren kultura berdintasunarekin parekatzea.

4. PROGRAMA

EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA

Autonomia lortzeko, kalitatezko enpleguak behar dira, pobrezia feminizazioa murriztu behar da eta gogoeta sustatu behar da emakumeek beren bizi-ziklo osoan diru-sarreraren segurtasuna izateari buruz.

- 4.1. Lanpostu gehiago eta hobeak sortzea.
- 4.2. Pobrezia feminizazioa murriztea.

5. PROGRAMA

ZAINTZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA

Zaintza-lanen ikusgarritasunean eta balioan sakontzen da, bai eta zaintza-lanekiko erantzunkidetasuna bultzatzeko bideetan ere.

- 5.1. Sozialki onartzea zaintza-lanak ezinbesteko baldintza direla bizitzaren jasagarritasunerako.
- 5.2. Ordaindu gabeko zaintza-lanak ikusaraztea eta horien balioa aitortzea.
- 5.3. Zaintza-lanen antolakuntza sozial berri bat babestea, horien gaineko ardurak birbanatzeko.





6.3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK



Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, urraketa larria. Gizonek emakumeen aurka baliatzen dute, bakar-bakarrik horiek emakumeak direlako, eta horren jatorrian genero-diskriminazioak eta egungo gizarte-eredu honetan gizonek emakumeekiko duten boterea daude.

VII. Planaren ondorioetarako, **hauek dira emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpenak:**

bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, emakumeen eta neskatilen aurkako sexu-indarkeria —barne direla sexu-abusua, sexu-erasoa eta sexu-jazarpena, edozein eremutan—, emakume eta neskatilen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, feminizidioa, adin goiztiarreko ezkontza, ezkontza hitzartua edo behartua, bai eta beste edozein indarkeria modu ere, emakumeen osotasuna edo askatasuna urratzen duena eta EAErentzat erreferentzia den araudian aurreikusita dagoena.



VII. Planaren bidez, politika efikazagoak eta eraginkorragoak ezarri nahi dira, eta horrekin, erdigunean jarri nahi dira bizirik atera diren biktimak (emakumeak, seme-alabak) eta indarkeriak haien bizitzetan dituen ondorioak.

Ardatz honek 3 programa barne hartzen ditu:

6. PROGRAMA

SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

Emakumeen eta emetasunaren gutxiagotasunari eusten dioten aurreiritziak, ikusmoldeak eta ohiturak aldatzeko.

- 6.1. Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.
- 6.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.
- 6.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta sendotzea.

8. PROGRAMA

ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Emakumeen aurkako indarkeriari erakundeek ematen dioten erantzunaren elementu nagusietako bat da.

- 8.1. EAEn emakumeen aurkako indarkeriari heltzen dioten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea.

7. PROGRAMA

DETEKZIOA, ARRETA ETA BERRONERATZEA


Programa honen bitartez, detekzio-, jardute- eta -deribazio sistemak hobetzea jasotzen da VII. Planean.

- 7.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra areagotzea.
- 7.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduzaren ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez.
- 7.3. Kaltearen erreparazio indibidual eta kolektiborako eskubidea bermatzea.





7. KUDEAKETA-SISTEMA



7.1. VII. PLANAREN EZARPENA ETA GARAPENA

Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiek eta udalek berdintasunaren arloan **jarduteko planak eta programak** egin eta onetsi beharko dituzte, bakarrik nahiz mankomunitateen bitartez. Plan horietan zehazten eta gauzatzen dira VII. Planean adierazitako berdintasun-helburuak eta gizartea aldatzeko erronkak.

Helburu horietako bakoitzerako, honako hauek zehaztu beharko dira gerora: zer lortu nahi den, zergatik, nola, noiz eta zer baliabide material, ekonomiko eta giza baliabiderekin.

BERDINTASUN-PLANEK NAHITAEZ EDUKI BEHARREKO EDUKIAK:

- Proposatutako esku-hartzearen abiapuntua edo diagnostikoa.
- Helburuak eta ekintzak.
- Planak bultzatzeko arduradunak eta teknikariak.
- Adierazle estrategikoak.
- Kronograma.
- Aurrekontua.
- Kudeaketa-sistema eta -egiturak.
- Ebaluazio-sistema eta -egiturak.

Sailetako, aldundietako eta tokiko berdintasun-planak, onartu baino lehen, **Emakundera bidali behar dira**, txostena egin dezan, planaren edukiak VII. Planean aurreikusitako esku-hartze ildo eta jarraibideetara egokitzen diren adierazteko.



7.2. VII. PLANA KUDEATZEKO EGITURAK

VII. Planaren garapenean, egitura hauek eskatzen dira EAEn:

ERAKUNDEEN BULTZADA-egiturak:	EMAKUNDE da EAEn berdintasun-politikak sustatzeaz, aholkularitza emateaz, plangintza egiteaz eta ebaluatzeaz arduratzen den organoa. <i>Berdintasunerako egitura espezifikoak: Planaren gauzapena, jarraipena eta ebaluazioa bultzatzea, nork bere eremuan.</i> - Eusko Jaurlaritzako sailtako berdintasunerako administrazio-unitateak. - Berdintasunerako foru-organismoak edo foru administrazio-unitateak. - Berdintasunerako toki-organismoak edo tokiko administrazio-unitateak <i>Egitura sektorialak, non politika sektorial bakoitzeko erabakiak hartzen diren: Berdintasuna agenda politikoetan elementu nagusia eta lehentasunezkoa izan dadin laguntzea.</i>
ERAKUNDEEN ELKARLAN- ETA KOORDINAZIO-egiturak:	<i>Barne koordinazioa (sailartekoa edo arlo artekoa), berdintasunaren arloko jarduerak planifikatzeko, gauzatzeko eta horien jarraipena egiteko.</i> - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea - Berdintasunerako koordinaziorako foru-organismoak. - Berdintasunerako koordinaziorako toki-organismoak.
ERAKUNDEARTEKO ELKARLAN- ETA KOORDINAZIO-egiturak:	<i>Lankidetzeta eta koordinazioa, berdintasunaren arloan, EAEko instituzioen artean.</i> - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearen Arteko Batzordea - Jarraipen Batzordea, etxean tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakunde arteko akordioarena. - Berdintasuna: Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea.
GIZARTE-ELKARLANEKO ETA PARTAIDETZAKO egiturak:	<i>Gizarte-partaidetza, berdintasun-planak kudeatzeko prozesuen fase guztietan.</i> - Emakundeko Aholku Batzordea. - Berdintasun-kontseiluak edo foru-aldundien bestelako partaidetza-organismoak. GUNEA (Gipuzkoa), Arabako Berdintasunerako Foru Kontseilua eta Berdintasunerako Foroa, Bizkaiko Foru Aldundiarena. - Berdintasun-kontseiluak edo udalen beste partaidetza-organo batzuk.



7. KUDEAKETA-SISTEMA

7.3. BALIABIDE EKONOMIKOAK, VII. PLANA GARATZEKO

Baliabide ekonomikoen zuzkidura funtsezko elementua da aurrera egin ahal izateko gizartean balioak aldatzen eta helburuak lortzen (gobernu ona, ahalduntzea, eraldaketa sozioekonomikoa eta emakumeen aurkako indarkeria eraztea).

Horregatik, VII. Planean ezarritako erreferentzia-esparruaren barruan garatu eta ezarritako berdintasun-planen aurrekontu-zuzkidura ezinbesteko elementua da, **eta horren ardura EAEko erakunde publiko guztiena da.**

VII. Planak aurrekontu-eragin esanguratsua izango du haren hedatze operatiboan, EAEn toki, foru eta autonomia mailan 100 berdintasun-plan baino gehiago baitaude indarrean, eta horretarako aurrekontu-konpromisoari jarraipena eta ebaluazioa egingo dio Emakundek.

7.4. VII. PLANAREN EBALUAZIOA

Emakunde EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planari jarraipena egiteko eta hura ebaluatzeko organo eskuduna da.

Betetze-mailaren ebaluazioa

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAEko botere publikoek egindako jarduerari jarraipena egitean datza, eta informazioa biltzeko sistema mekanizatu eta telematiko baten bitartez egiten da. Aldizkako analisiak egiten dira urtero, eta VII. Planaren betetze-mailari buruzko azken ebaluazio bat ere egiten da.

Koherentziaren ebaluazioa

Metodologia kualitatibo baten bitartez garatuko da, eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken dimentsio kontzeptual eta errealar helduko dio, haren kalitateaz eta eraldaketa-ahalmenaz hausnartzeko.

Prozesuaren ebaluazioa

Ezarpen-prozesuan eta haren hedatze antolamenduzkoan eta operatiboan sakontzea du ardatz.

Inpaktua ebaluatzea

Sintesi estrategikoko adierazle-sistema baten bitartez, aztertuko da berdintasun-politikek nola eragingo duten politika horien hartzaile diren pertsonen eta kolektiboen egoera aldatzen, epe ertainera eta luzera. Sistema hori Genero Berdintasunaren Indizean oinarrituta definitu da, eta planaren beraren jarraipen-sistemekin eta indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko dauden baliabideekin osatu.



VII. PLANAREN ADIERAZLE ESTRATEGIKOEN SISTEMA

GOBERNU ONA		- Berdintasunerako aurrekontuak - Berdintasunerako plangintza - Berdintasunaren arloko langileak
EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	DENBORA	- Pertsonen zaintza: umeak, edadetuak eta/edo mendeak - Etxeko lanak - Kirol, kultur eta aisialdiko jarduerak - Boluntarioen jarduerak eta ongintzakoak
	OSASUNA	- Norberaren osasunaren pertzepzioa - Bizi-itzaropena - Osasun oneko bizi-urteak - Tabako eta alkoholaren edarien kontsumoa - Bizi-ohitura osasungarriak - Osasun-laguntza - Arreta odontologikoa
	BOTEREA	- Gobernu-ordezkaritza - Legebiltzar-ordezkaritza - Ordezkaritza lurralde-batzarretan - Enpresa-zuzendaritza - Banku publiko edo erdipublikoetako zuzendaritza - Finantzazio publikoa edo erdipublikoa - Hedabide publikoak - Kirol-federazioak
EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA	EZAGUTZA	- Unibertsitate-ikasketak - Bereizketa, ikasketa-eremua - Etengabeko prestakuntza
	ENPLEGUA	- Lanaldi osoko enplegua - Lan-bizitzaren iraupena - Bereizketa, jardura-sektoreka - Ordutegi-malgutasuna, familia eta arrazoi pertsonalengatik - Lan-ibilbidea
	DIRUA	- Soldadak - Diru-sarrerak - Pobrezia-arriskua - Diru-sarreraren banaketa
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK		- Indarkeriaren prebentzioa ikastetxeetan - Indarkeria jasan duten emakumeak - Prebentzio- eta/edo arreta-protokoloak

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako **VII. PLANA**



Erakunde autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo del

GOBIERNO VASCO